

SARATXOKO ERREPIDEAREN OBRAREN GORABEHERAK

Beti esan izan dugu Saratxoko errepidearen eraikuntza (eta ez konponketa beraiek esaten duten lez) handikeri hutsa zela, eta egun hori egiaztatzeko obrak ikustea besterik ez dago. Covid-19aren pandemiak edozein obratan bezala atzerapenak eragingo zituen baina ez da hori arazo nagusia.

Hain perfektua eta etorkizuneko errealitatera doituko zen obra izanik, ez dugu ulertzen zertara datozen orain egiten ari diren espropiazio berriak. Bai, harrigarria den arren herritar guztiei kendu diguten guztia (etxea dela, ortua, lursaila, negozioen etorkizuna kolokan jartzea...) kenduta, orain zenbait lekutan ez zaie aurreikusitako obra perfektua sartzten, eta jabeei lur gehiago kenduko diete, aspaldi jarritako mojietatik barrurago sartzten dira. Ez dira gutxi izan proiektu hau egiteko eman duten denbora eta dirua, beraz, orain aldaketa hauek zertara dator?

Bestetik, obra zenbait puntutatik hasita dute eta zonalde batekoa bukatuta edo erdi bukatuta izan barik, jada beste zonalde batean lurra mugitzen hasten dira, uraren bideak aldatuz. Herritarren eta administrazio batzarraren aholkuei kasu gutxi egiten digute eta ondorioz uraren bideraketa okerra burutzen ari dira. Adibidez, Venta de los Aires deritzon eremuan ura etxe batzuetaraino eramatea izango da lortuko dutena.

Ez dago jakiterik zer nolako gainkostua eragiten ari den obraren hainbeste zonaldean lurra eusteko hormigoizko piloteen sarrerak. Pentsatzen zutena baino askoz beherago topatu baitute arroka ama zenbait lekutan eta horrek lurra eusteko teknika hau (pilotajea) uste baino leku gehiagotan erabiltzera behartu ditu. Teknika honekin alboan dauden etxeetan bibrazioak eta ondoriozko arrakalak agertu ziren, bizilagunak beldur eta tentsio izugarriarekin bizi izan dituztelarik momentu horiek.

Saratxon obra honen kaltea pairatzen ari garenok nekatuta gaude azalpen perfektuak entzun eta ostean errealitatean gaizki kalkulaturako ekintzen ondorioak pairatzeaz. Nekatuta, triste, desgastatuak...ez dago hitzik azaltzeko nola sentitzen garen Saratxoko bizilagunok.

Baina arabar guztiok egon beharko lirateke kezkatuta gure probintzian egiten diren errepideen ikuspuntuarekin, handikeri eta basakeri hutsa baitira. AHT-a, Supersur-a eta Bolintxun egiten ari diren neurrigabeko obraren aurka agertu diren askok obra hau salatu beharrean beste alde batera begiratu dute. Akaso alboko probintzian honek suposatzen zien errentagarritasun politikoa zela eta, beste arrazoi bat triste egoteko.

Suposatzen dugu ziurrenik pairatuko dugun krisi ekonomikoa ikusirik Arabako agintari batek baino gehiagok galdetuko diola bere buruari, obra jasangarriagoa eta askoz merkeagoa egin izan bagenu sortuko zaizkigun aurrekontu arazoei ez ote genien era duinago batean aurre egingo?

Basakeri hutsa zen paperean, baina errealitateak planoak gainditzen ditu.

Saratxo bizirik (edo hilik dagoeneko)

Saratxoko Administrazio batzarra